

Urrunetik heldutako txoria

'TXORIA'

Izenburua: 'Txoria'. Jatorrizko izenburua: *Sae*.
 Egilea: Oh Jung-hi. Itzultzailea: Juan Kruz
 Igerabide. Argitaratze urtea: 2006. Argitaletxea:
 Alberdania.

A. IRIZAR

MUNDUA auzo dugun hone-tan, ordenagailuaren sagua-rekin klik egin eta edozer eskura izan dezakegula iruditzen zaigun garaiotan, tarteka ohartzen gara badugula oraindik ere zer ezagutu, baita literaturan ere noski. Korear letretako ale bat hurbildu digu Alberdania argitaletxeak, Oh Jung-Hi idazlearen *Txoria* hain zuzen, eta apustua bera, egia esan beharra dago, benetan eskertzekoa da.

Nobela laburra dugu *Txoria*, baina ez du horregatik indar eta bizitasun faltarik. Bi anai-arreba ditugu protagonistak: hamaika urteko Umi izeneko neskatua eta bederatzia urteko Uil bere anaia, pixka bat atzeratua baita. Ama hilda, aitik eskutik utzita, inoren laguntzarik gabe moldatu beharko dute azkenean neska-mutikoek. Umi dugu narratzailea, neskatxa alegia, eta hamaika urteko haur baten ikuspegi xaloaz adierazten dizkigu gertakizunak. Kalotasun horren ondorioz, ez bat-batean baizik eta gutxika-gutxika jabetuko da irakurlea liburuko errealitate gordinaz, ez baita nabarmenki agertzen. Era berean, haurraren kontatzeko era xaloa dela eta, are mingarriagoa eta lazgarriagoa gertatuko zaio errealitate

hori irakurleari. Leuntasuna eta gordintasuna, Hego Koreako banderan ageri diren ying-a eta yang-a balira bezala. Eta badira binaka elkarren osagarri ageri diren beste elementu kontrajarri batzuk ere liburuan zehar: antzinako mundua –ohiturak, sineskeriak– eta modernitatea, mendebaldea eta ekialdea...

Oh Jung-Hi 1947an jaio zen Seulen, eta berak ere, nonbait, ez zuen bizimodu samurra izan neskatua zelarik. Autore hau, Europako gure inguruotan, frantsesera eginitako itzulpenen bidez egin zaigu ezagun; baditu frantsesez beste hiru liburu. Gaur hona ekarri dugun *Txoria* hau ere frantsesez baino ez dugu aurkituko inguruko hizkuntzetan; ingelesezko itzulpena aurten omen da argitarat-

zekoa. Gauzak horrela, euskarazko itzulpena egiteko, Juan Kruz Igerabidek –berak itzuli baitu liburua– frantsesezko testua izan du iturri; liburuan ez da datu hori aipatzen, baina hala adierazi zuen idazleak liburuaren aurkezpenean. Jatorrizkoa ulertu ezinak eta alderatzeko beste itzulpenik ez izateak salduxe utz dezakete zenbaitetan itzultzailea, eta hark, horrelako zalantza kasuetan, itzulpeneko darabilen testuari orpoz orpo jarraituz aurkituko du irtenbidea. Irudipena dut Igerabidek, liburu honetan, ikusi duela zenbaitetan bere burua horrelako egoera. Edonola ere, ez beza beldurrik izan irakurle euskaldunak, horrelako kontutxoak gorabehera, berdin eroriko baita istorioaren zurrunbiloan.